

"HONDAKIN ARRISKUTSUEN GESTIO JASANGARRIA UPV/EHU_n: SAILKATZEA, MINIMIZAZIOA ETA TRATAMENDUA"

Hondakinen gestio jasangarriak ezinbestean dakar, lehenengo eta behin, hauen bolumena ahal denik eta txikiena izan dadin, bereziki, arriskutsutzat jotzen direnak eta tratamenduan eta gestioan ingurumen kostu altua dakartenak.

Beste alde batetik, hondakin arriskutsuen gestio jasangarriak berariaz dakar sortutako hondakinak identifikatu eta sailkatzea, erabili beharreko ontziak eta edukiontziak behar bezala hautatzea, hondakinok biltegitratzeko gomendioak ezagutzea eta hauei emanen zaizkion azken xede edo tratamendua.

Ikastaro honetan egunerokoan hondakin arriskutsuak kudeatzeko jarraibide batzuk emango dira. Hortaz gain, kudeaketa honetan hobetu eta aurreratzeko esperientziak elkarbanatuko dira.

Helburuak:

- Bertaratutako pertsonak gai bihurtzea, hondakin arriskutsuen (HA) arloko legeak eta hondakinen ekoizle gisa duten betebeharrak bete ditzaten.
- UPV/EHUko laborategietan sortutako hondakin arriskutsuen ardurazko gestiorako prozedura azaltzea eta hauen gestio okerrak eragindako arriskuak identifikatu eta gutxitzea.
- Hondakin arriskutsuen ekoizpen eta arriskua gutxitzera bideratutako neurrien erabilera sustatzea, beroriek laborategietan bertan berrerabili, berreskuratu eta tratamendua balioetsiz.

Edukiak:

1. Hondakin arriskutsuak (HA):
 - Erreferentziazko legeria eta HAren ekoizleen betebeharrak
 - Unibertsitatetik eratorritako hondakin arriskutsuak
 - HA-en sailkapena, ontziratzea, etiketatua eta biltegitratzea
2. Hondakin arriskutsuen gestio prozedura UPV/EHU_n
3. HA minimizatzeko jarraibideak irakaskuntza eta ikerkuntza laborategietan
4. UPV/EHUren HA-en tratamendua: azken xedea
5. UPV/EHUren HA-en bilketetako gorabeheren analisia

Norentzat:

UPV/EHUko ikastegi, sail, laborategi, lantegi eta abarretako hondakinak kudeatu eta ekoizteko arduradunentzat: irakasle eta ikertzaile pertsonala (IIP), pertsonal teknikoa (AZP) eta beste ikertzaileentzat.

Nork emana:

Adrián Allueva. *SITA SPE IBERICA*ren eragiketa eta larrialdietarako arduraduna, UPV/EHUren hondakin toxiko eta arriskutsuen gestioa adjudikatuta duen enpresa.

Egunak eta tokiak:

| CAMPUSA | EGUNA | ORDUTEGIA | TORIA | IKASGELA |
|----------|---------------|---------------|------------------------------------|---|
| Leioa | Urtarrilak 24 | 10:00 – 14:00 | Zientzia eta Teknologia Fakultatea | Erabilera Anitzeko Gela (1.A1). Hitzaldi-Aretoa |
| Gipuzkoa | Urtarrilak 25 | 10:00 – 14:00 | Joxe Mari Korta Zentroa | Auditorioa |
| Araba | Urtarrilak 26 | 10:00 – 14:00 | Elurreta ikasgelategia | Gradu Aretoa |

Izena ematea:

2016ko abenduaren 12tik 2017ko urtarrilaren 12ra arte

- **AZP:** [UPV/EHUko Langileen ataria](#)
- **IIP eta beste pertsonal batzuk:** [Web atariko formularioa](#)

Informazio gehiago:

- EHUko Hondakinen kudeaketarako Teknikaria
T.: 943 01 8164 / isaac.barrio@ehu.eus